

## PROGRAMAREN DATU OROKORRAK

<b>Departamentua:</b>	03 - ZAINKETETAKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA
<b>Atala:</b>	0310 - 2030 Agendako, Berrikuntzako eta Ebaluazioko Zuzendaritza Nagusia
<b>Programa:</b>	100 - Agenda, Berrikuntza eta Ebaluazioa
<b>Funtzionala:</b>	231 - Gizarte ekintza

### Programa mota:

Finalista

### Misioa:

Departamentuaren Plangintza Estrategikoa (PE) diseinatzea, haren jarraipena eta ebaluazioa egitea, bai eta Trantsizioko Gizarte Politiken Agendaren koordinazioa ere  
Gipuzkoako Lurralde Historikoko gizarte-zerbitzuen eta zainketen eraldaketa bultzatzea berrikuntza, esperimentazioa, modernizazioa eta hobekuntzen bidez.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko zaintza, politika eta gizarte-zerbitzuen kalitatearen ebaluazioa monitorizatzea  
Elkarlaneko gobernantza bultzatzea, (gizarte-boluntarioritza eta hirugarren sektore sozialarekiko eta komunitatearekiko lankidetzak sustatzea)

(Herritarrei arreta eta informazioa emateko zerbitzua hobetzea)

Adinberri Fundazioari laguntzea eta laguntzea

### Egoeraren diagnostikoa:

Gipuzkoako gizarte-politiken ibilbidea

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuak, 2015ean, gobernu on baten nortasun ezaugarriarekin lerrotutako politika publikoak gauzatzearen aldeko apustua egin zuen; apustu horrek jasotzen dituen artean daude berrikuntza sozialarekiko kezka, emaitzetara bideratutako kudeaketa eta pertsonen arretan etengabeko hobekuntza bilatzea, zerbitzuen ebaluazioan hobekuntzak lortzearekin batera. Horren guztiaren lekuko ditugu joandako urte hauetan zehar ekindako jarduketak, plan eta erreforma ugariak, ugaritasun hori ez baita soilik kopuruan ikusten, baizik eta baita gauzak egiteko moduetan ere, Gipuzkoako gizarte eragileen konplizitatea bilatzen du eta.

Prozesu horretan guztian, Gipuzkoako Foru Aldundiak esan du etorkizuneko erronkei emandako erantzunak ez datozela soilik ohiko tresnetatik. Beharrezkoa da berritzea, politika publikoak pixkanaka eraldatzearen aldeko apustua egitea. Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiak, joan den legegintzaldiaren hasieratik, Etorkizuna Eraikiz bultzatu zuen, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren etorkizuneko erronkak modu kolektiboan hauteman eta aurreikusteko, erronka horiei aurre egiteko modua diseinatzeko, ingurune errealean erantzun posibleak esperimentatzeko hainbat eragileren laguntzarekin, eta emaitzak Gipuzkoako Foru Aldundiaren politika publikoetan aplikatzeko.

Covid-19 pandemiaren inpaktuak

Egoera horretan sartu zen COVID-19ak eragindako krisi sozio-sanitarioa eta ekonomikoa, trantsizio demografikoaren ondorioz identifikatutako erronketan sakondu duena. Hala, krisiak hainbat erronka bizkortu ditu gizarte politiketarako, hala nola sistemen koordinazioa, pertsonalizazioan oinarritutako arreta eta zainketen eredu berri baten sustapena, laguntzaren kalitatearen hobekuntza, etxeko arreta indartzea, arretarako, zaintzarako eta laguntzarako tokiko ekosistemak sortzea, eta profil profesional berriak birdefinitzea gizarte zerbitzu berritzaileak eta eraginkorrak eskaintzeko.

Aurrekaririk gabeko egoera baten erdian, urgentziaz eta tragediaz inguratuta, zaila da atzerapauso bat ematea, eta beharrezkoa da krisi batek dituen aukeretan pentsatzea. Alabaina, eta iraganean antzeko egoeretan gertatu izan den moduan, sekula ez dugu krisi on bat bazterrean utzi behar, aukera baliatu gabe lehendik finkatuari erronka jotzeko eta aukera eta erronka berriak ezartzearen bidetik aldaketa eta eboluzioa sustatzeko.

Trantsizioko gizarte politikak

Trantsizio demokratikoa, biztanleriaren zahartzearekin batera, Gipuzkoako lurralde historikoak aurre egin beharreko erronka nagusia da. Erronka horri erantzuteko, ADINBERRI Lurralde Estrategia jarri da abian, elkarlaneko gobernantza indartzeko eta proiektu esperimentalak bultzatzeko, zahartze osasungarriari lotutako irtenbideak probatu eta aurreratze aldera. Etorkizuna Eraikiz programaren ikuspegi esperimental eta kolaboratiboan, ADINBERRI estrategian eta Trantsizioko Gizarte Politikan oinarritutako ikuspegi berri baten garapenean txertatzen da Gipuzkoako 20>30 Agenda hau.

Trantsizioko Gizarte Politikak honela egituratzen dira: trantsizio demografikoaren, gizarte inklusioaren, COVID-19aren krisiaren inpaktuaren eta pandemiaren aurretik garatzen ari ziren politikekin jarraitzeko beharrezko arazo konbinatuak erantzuna emateko, bitzita osorako zaintza eredu berri bat bultzatzearen inguruan.

## Gipuzkoa 20>30 Agenda: Trantsizioko Gizarte Politikak

Gipuzkoa 20>30 Agendaren helburu nagusia da esparru eta zuzendaritza orokor bat eskaintzea, datozen 10 urteetan jarduteko modu berri bat gidatzeko eta gizarte-eragile guztiek eraldaketa-ingurune dinamiko batean duten zeregina indartzeko.

Gipuzkoa 20>30 Agendak apustua egiten du Gipuzkoako Lurralde Historikoko Gizarte Politiketako lau arlo handitan arretaren, zaintzen eta laguntzen eredu aldatzeko jarraitzearen alde:

### Beharrendaren deskribapen xehatua:

1. eraldaketa: Gizarte Politika guztietarako arreta-, zaintza- eta laguntza-eredu berri bat bultzatzea

Beharrezkoa da arreta-, zaintza- eta laguntza-eredua aldatzea gizarte-politika guztietarako. Eredu-aldaketa horrek gizarte-zerbitzuen eraldaketa kultural eta instituzional sakona dakar berekin, bost aldaketa-ildo nagusi garatu baitira:

a) gizarte-zerbitzuak pertsonalizatzeko aldeko apustua, b) zainketarako tokiko ekosistemak sortzea (etxeko arreta indartuko dutenak, osasun-zerbitzuak, gizarte-zerbitzuak eta zerbitzu komunitarioak konektatuz), c) egoitza-zentroak eta beste ostatu-baliabide batzuk birdiseinatzea (eguneko zentroak, harrera-zentroak, etab.), ostatu modu berrietara lotuta; d) lan-baldintzak hobetzea, prestakuntza eta espezializazio handiena duen sektorea erakargarriagoa izan dadin; e) berrikuntza sozial eta teknologikoa bultzatzea, esperimentazio sozialari esker, eredu-aldaketari euskarria emateko eta horren ebidentziak sortzeko. Lan-ildo horiek eskatzen dute araudia sakonki eguneratzea eta sistemaren eraginkortasun eta jasangarritasun ekonomiko handiagoa lortzera bideratutako gizarte-zerbitzuak egokitzea.

2. eraldaketa: Lurralde mailan elkarlaneko gobernantza indartzea

Ezinbestekoa da elkarlaneko gobernantza indartzea, hau da, gizarte-politiken belaunaldi berri bat diseinatu, ebaluatu, gomendatu eta sustatzeko espazio parte-hartzaile eta deliberatibo berriak bultzatu eta sortzea. Elkarlaneko gobernantzak trantsizioko gizarte politikaren produkzio prozesuarekin konektatzen ditu instituzioak, erakundeak eta erabiltzaileak, etorkizunera begirako partaidetzaren diseinuan eta trantsizio agenden eraikuntzan oinarrituta.

3. eraldaketa: Esperimentazioa eta berrikuntza integratua bultzatzea

Beharrezkoa da esperientzia pilotuak (produktu eta zerbitzu berriak) diseinatzeko, inplementatzeko eta ebaluatzeko eredu esperimentalen aldeko apustua egitea. Eredu horiek modu operatiboan bultzatzen dute arreta, zaintza eta laguntzako eredu berrietarantzko pixkanakako aldaketa. Proiektu esperimentalak zaintzako tokiko ekosistemen esparruan inplementatzen dira. Proiektu esperimentalak testuinguru errealean aztertu ondoren, esku hartzeko eta zaintzeko produktu, zerbitzu edo metodologia berriak diseinatu dira, berrikuntza teknologikoa eta gizarte-, antolamendu- eta erakunde-berrikuntza (berrikuntza integratua) konbinatuz.

4. eraldaketa: Zaintzak ebaluatzeko eta trantsizioko gizarte-politikak monitorizatzeko eredu berri bat garatzea

Gizarte-politikak ebaluatzeko sistema berri bat sustatu behar da. Sareko ebaluazio-sistema bat da, hainbat ebaluazio-nodoz osatua (erabiltzaileak, familiak, kontraste-taldeak eta nazioarteko adituak), gizarte-zerbitzuen kalitatea egiaztatzeko eta gizarte-politiken erabiltzaileen bizi-kalitatearen hobekuntzan duen eragina ebaluatzeko gai dena.

### Nori zuzendua:

Departamentuaren zerbitzu teknikoak, Foru Aldundiaren osotasuna, Gizarte Zerbitzuen Sistemaren ekintzaile publiko eta pribatuak, gizarte orokorrean.

### Programaren estrategia.

#### 1. Baliabideak (inputak):

Teknikariak, tresna informatikoak, datuak, kanpoko laguntzaileak (udalak, SIIS, unibertsitatea, beste batzuk). Berrikuntzarako laguntzen deialdia. Adinberri Fundazioa.

#### 2. Garatu beharreko jarduerak/prozesuak:

- Departamentuaren Plangintza Estrategikoaren diseinua, koordinazioa, jarraipena eta ebaluazioa
- "Trantsizioko Gizarte Politikak" Agendaren jarraipena eta ebaluazioa
- Epe luzerako joerak zaintzea gizarte-premia berrietan eta zaintzetan
- Zaintzan eta gizarte-politikan berrikuntza- eta esperimentazio-proiektuak kudeatzea eta finantzatzea
- Produktuak, prozesuak eta zerbitzuak hobetzea, berrikuntza iraunkorreko printzipioak aplikatuta
- Esku hartzeko eredu komunaren ezarpena koordinatzea Lurraldeko udalekin eta gizarte-erakundeekin, arreta berezia jarritz zaintzako tokiko ekosistemak sendotzeko
- Gipuzkoako Lurralde Historikoko zaintza, politika eta gizarte-zerbitzuen kalitatea monitorizatzeko eta ebaluatzeko prozesuak diseinatzea eta koordinatzea
- Gizarte-politikan lankidetzako gobernantza bultzatzea, bai eta pertsonen gizarte-politiken diseinuan, kudeaketan eta ebaluazioan parte hartzea ere.

- i. Sailaren modernizazioa, prozesuen hobekuntza, digitalizazioa eta barne-koordinazioa.
- j. Sailaren antolaketa egokitzea, pertsoneri arreta pertsonalizatua emango zaiela bermatzeko.
- (k. Herritarrentzako informazio- eta arreta-zerbitzuak kudeatzea eta antolatzea.
- l. Gizarte-ekintzarekin lotutako boluntarioen koordinazioa, Gizarte Ekimenari Laguntzeko Planaren kudeaketa eta kontrola barne.
- ll. Gizarte-boluntarioria eta hirugarren sektore sozialeko erakundeekiko lankidetzaren sustatzea)

### 3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

Gizarte-zerbitzuen behatokia  
Ebaluazioko Agenda eta Agentzia  
Gizarte-premien diagnostikoari eta etorkizunari buruzko txostenak;  
Informazioari, eztabaidari eta hausnarketari buruzko jardunaldi tamatikoa antolatzea.  
Proiektu berritzaileak.  
Zaintzen ekosistema lokalak  
Datu soziosanitarioren plataforma federatua Zaintza Datu Gunea  
Egoitza-zentroak ikasteko eta transferitzeko sarea  
Zaintzako ekosistema lokalak ikasteko eta transferitzeko sarea  
Aurrerabide Plana

### Programaren arau esparrua:

Gizarte-zerbitzuen legegintza-esparru orokorra, Departamentuaren eskumenei eragiten diena. Europar Batasunean honako hauek daude:

1. Gizarte Eskubideen Europako Zutabea
  2. Europako zainketa-estrategia
- EAEen:
1. EAEko Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoa
  2. Adinekoekiko euskal estrategia
  3. Familia zaintzaileei laguntzeko estrategia soziosanitarioa
  4. 2008ko Gizarte Zerbitzuen Legea eta 2006ko Mendekotasun Legea
- Estatuan:
1. SAADen zentron eta zerbitzuen kalitatea egiaztatzeko irizpide komunei buruz
  2. Desinstituzializazioaren estatu-estrategia
- Gipuzkoako Lurralde Historikoaren mailan:
1. Gipuzkoako Estrategia Zaintzen Lurraldea 2030
  2. Gipuzkoa Agenda 20 > 30: Trantsizioko Gizarte Politikak
  3. Adinberri Fundazioaren Agenda Estrategikoa

## DEPARTAMENTUAREN JARDUKETA OPERATIBOA

**Urteko helburua:** Zaintzen ebaluazioa garatzea.

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Gipuzkoako Zaintzen Ebaluazio Agentziaren funtzioak, estruktura eta era juridikoa definitzea	Bai/Ez	=	Ez	Ez	Bai	Bai

### Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

#### 1. Jarduketa ildoak:

Gipuzkoako Zaintzen Ebaluazio Agentziaren diseinua eta inplementazioa

Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
<b>Jarduketa ildoak, guztira</b>	600.000,00			2024/01/01	2024/12/31	
<b>1.1 Ekintza</b> Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen kalitatea ebaluatu eta kudeatzeko Agentziaren disenua	600.000,00			2024/01/01	2024/12/31	
<b>2. Jarduketa ildoak:</b> Agenda ebaluatzea eta minitorizatzea						
	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
<b>Jarduketa ildoak, guztira</b>	500.000,00			2024/01/01	2024/12/31	
<b>2.1 Ekintza</b> Agenda monitorizatzea	500.000,00			2024/01/01	2024/12/31	
<b>Urteko helburua:</b>	Zaintza eta Gizarte Politiketako Departamentuaren antolaketa eta teknologia modernizatzea.					
Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Hasitako zeharkako hobekuntza-proiektu digitalen ehunekoa	Ehunekoa	>=	0,00	50,00	50,00	100,00
Departamentuko prozesuen mapa eguneratzea	Bai/Ez	=	Ez	Ez	Bai	Bai
Arreta emateko ibilbide persoanlizatuaren unitate transbertsala sortzea	Bai/Ez	=	Ez	Ez	Bai	Bai
<b>Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak</b>						
<b>1. Jarduketa ildoak:</b> Departamentuaren antolaketaren modernizazioa						
	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
<b>Jarduketa ildoak, guztira</b>	500.000,00			2024/01/01	2024/12/31	
<b>1.1 Ekintza</b> Zuzendaritza Nagusia sortzea Agenda, berrikuntza eta ebaluazioa	500.000,00			2024/01/01	2024/12/31	

**Urteko helburua:** ADINBERRI bultzatzea, Gipuzkoako zahartze osasuntsu baten aldeko erreferentziako estrategia berri gisa.

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Proiektu bat diruz lagunduta duten eta Hariak estrategiarekin zerikusia duten udalen kopurua	Kopurua	=	0,00	0,00	7,00	21,00

**Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak**

**1. Jarduketa ildoak:**

ADINBERRIren jasangarritasuna hedatu, indartu eta bermatzea, zahartze osasuntsu baten aldeko estrategia gisa.

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
<b>Jarduketa ildoak, guztira</b>	1.348.546,00			2024/01/01	2024/12/31	
<b>1.1 Ekintza</b> Bakardadeen aurrean lurralde-estrategia bat diseinatzea eta hedatzea	1.189.297,54			2024/01/01	2024/12/31	
<b>1.2 Ekintza</b> Prestakuntza arautuko programa bat garatzea	149.763,00			2024/01/01	2024/12/31	
<b>1.3 Ekintza</b> ADINPREST programa indartu	9.485,46			2024/01/01	2024/12/31	

**Urteko helburua:** Arretaren eta zaintzaren berrikuntza eta pertsonalizazioa sustatzea

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Tokiko zaintza-ekosistemak bultzatzeko inplikaturako udal berrien kopurua	Kopurua	>=	0,00	0,00	3,00	10,00
Onartutako berrikuntza proiektuen ehunekoa	Ehunekoak	>=	0,00	0,00	80,00	80,00

**Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak**

**1. Jarduketa ildoak:**

Etxeetan zainketa pertsonalizatuak sustatzea.

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz



	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
<b>Jarduketa ildoak, guztira</b>	650.000,00	500.000,00		2024/01/01	2025/12/31	
<b>1.1 Ekintza</b> Zaintzen tokiko ekosistema berriak edo jada hasita daudenak sustatzeko laguntzen deialdia	500.000,00	500.000,00		2024/01/01	2025/12/31	
<b>1.2 Ekintza</b> Etxeko zaintza berritzaileak hobetzeko eta sustatzeko zerbitzu berrien ezarpena edo egungo zerbitzuen egokitzapena dirulaguntzen deialdia	150.000,00			2024/01/01	2024/12/31	

**GENERO BERDINTASUNEN PLANA**

**Programaren genero garrantzia:** Handia

**Programak ukitzen duen kolektiboa:**

Populazio osoa

**Programak ukitutako gaitasuna(k):**

Zainketa egokiak jasotzea

**Beharraren deskribapen zehatua:**

Saileko pertsonak, hirugarren sektoreko eragileak, zerbitzuak ematen dituzten enpresak eta erakundeak, Gipuzkoako gizartea, oro har.

**Kuantifikazioa:** 948,55 ( % 0,02 )

**Ordainketa kredituak:** 948,55 ( % 0,03 )

**Datozen urteetako gastuak:** 0,00 ( % 0,00 )

Kategoria	Nola	Nola %	Esleitutako adierazlea
Go.HO.5.1. Informazioaren sorreran, tratamenduan eta zabalkundearen sexu aldagaia sistematikoki txertatzen jarraitzea, eta pertsonen zein genero ikuspegia txertatzeko prozesuei eta prozedurei buruzko adierazleak sortzeko eta jasotzeko aurrerapausoak egitea.	Go.5.1.3. GFaren azterlanetan, planetan, txostenetan eta gainerako dokumentazio estrategikoetan datuak sexuaren arabera eta genero adierazleekin sartzeari.	( % 100,00 )	



## HIZKUNTZA BERDINTASUNeko PLANA

### Beharraren deskribapen xehatua:

#### 1.- Zerbitzu hizkuntza:

Bermatu programa honen baitan eskaintzen diren zerbitzu guztiak Euskaraz ere emateko gaitasuna daukagula.

#### 2.- Lan hizkuntza:

Programa honen baitan gauzatzen den eguneroko lanean euskararen erabilera indartu, bereziki:

- Ahozko harremanetan.
- Bileretan.
- Idatzizko harremanetan (emailak).
- Txostenen ekoizpenean.

Kategoria	Nola
8.- Kontratazio administratiboak eta diru laguntzak	





**PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA**

Gastuen kapituluak / Capítulos gastos	2024	Datozen urteetako gastuak/Gastos Futuros				
		2025	2026	2027	2028 eta hurrengoak/ 2028 y siguientes	Guztira / Total
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	99.526,00					
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	1.600.000,00					
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS						
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES	1.799.020,00	500.000,00				500.000,00
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS						
<b>Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes</b>	<b>3.498.546,00</b>	<b>500.000,00</b>				<b>500.000,00</b>
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES						
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	100.000,00					
<b>Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital</b>	<b>100.000,00</b>					
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS						
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS						
<b>Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras</b>						
<b>Guztira / Total</b>	<b>3.598.546,00</b>	<b>500.000,00</b>				<b>500.000,00</b>

Planen zenbateko osoa, kapituluka / Total planes/capítulos	Ordainketa kredituak / Créditos de pago		Datozen urteetako gastuak / Gastos futuros		Guztira / Total	
	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL		99.526,00				99.526,00
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS		1.600.000,00				1.600.000,00
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS						
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES		1.799.020,00		500.000,00		2.299.020,00
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS						
<b>Eragiketa arruntak, guztira</b> <b>Total operaciones corrientes</b>		<b>3.498.546,00</b>		<b>500.000,00</b>		<b>3.998.546,00</b>
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES						
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL		100.000,00				100.000,00
<b>Kapitaleko eragiketak, guztira</b> <b>Total operaciones de capital</b>		<b>100.000,00</b>				<b>100.000,00</b>
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS						
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS						
<b>Finantza eragiketak, guztira</b> <b>Total operaciones financieras</b>						
<b>Guztira / Total</b>		<b>3.598.546,00</b>		<b>500.000,00</b>		<b>4.098.546,00</b>

Sarrerren kapituluak / Capítulos de ingresos	2024	Gastuari lotutakoak / Afectados a gasto
1. ZUZENEKO ZERGAK/IMPUESTOS DIRECTOS		
2. ZEHARKAKO ZERGAK/IMPUESTOS INDIRECTOS		
3. TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK/TASAS Y OTROS INGRESOS		
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/TRANSFERENCIAS CORRIENTES	120.000,00	
5. ONDARE SARRERAK/INGRESOS PATRIMONIALES		
<b>Eragiketa arruntak, guztira / Total operaciones corrientes</b>	<b>120.000,00</b>	
6. INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEA/ENAJENACION DE INVERSIONES REALES		
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/TRANSFERENCIAS DE CAPITAL		
<b>Kapitaleko eragiketak, guztira / Total operaciones de capital</b>		
8. AKTIKO FINANTZARIOAK/ACTIVOS FINANCIEROS		
9. PASIBO FINANTZARIOAK/PASIVOS FINANCIEROS		
<b>Finantza eragiketak, guztira / Total operaciones financieras</b>		
<b>Guztira / Total</b>	<b>120.000,00</b>	